# Bestelako Xedapenak

## EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

### 3086

AGINDUA, 2011ko maiatzaren 23koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeko idazkariak bere kargua utzi eta bere ordezkoa izendatzea eta Batzorde horren egoitza aldatzea xedatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren III. kapituluko 3. atalak Arbitraje Batzorde bat arautzen du eta Itunaren 66. artikuluaren 1. atalak ezarritakoaren arabera, Batzordearen eginkizunak honako hauek dira:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo hauen eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak ebaztea, bai zerga itunduen lotura-puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zerga edota Balio Erantsiaren gaineko Zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banako zerga harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesatuen artean sor litezkeen auziak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

Bere aldetik, aipaturiko Arbitraje Batzordeari buruzko Arautegiak, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak hartutako erabakiaren bitartez 2007ko uztailaren 30eko dataz onarturikoak, bere 7. artikuluan honako hau ezartzen du:

«1.– Arbitraje Batzordeak idazkari bat izango du. Idazkari hori ezin da Batzordeko kide izan eta honako hauetako baten zerbitzuko pertsona izango da: Estatuko Administrazio Orokorra, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra edo foru aldundiak.

2.– Ekonomia eta Ogasuneko ministroak eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuak izendatuko dute Arbitraje Batzordeko idazkaria. Beronek txandakatua izan arte hiru urtez jardungo du.

...)»

Zerikusia duten administrazio guztiek akordioa hartu zuten idazkari irudia lehenengo aldiz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

### 3086

ORDEN de 23 de mayo de 2011, del Consejero de Economía y Hacienda, por la que se dispone el cese y la designación del Secretario de la Junta Arbitral prevista en el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco y se modifica la ubicación de su sede.

El Capítulo III, Sección 3.ª, del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco regula una Junta Arbitral cuyas funciones, tal como establece el apartado uno del artículo 66 del Concierto, son las siguientes:

a) Resolver los conflictos que se planteen entre la Administración del Estado y las Diputaciones Forales o entre éstas y la Administración de cualquier otra Comunidad Autónoma, en relación con la aplicación de los puntos de conexión de los tributos concertados y la determinación de la proporción correspondiente a cada Administración en los supuestos de tributación conjunta por el Impuesto sobre Sociedades o por el Impuesto sobre el Valor Añadido.

b) Conocer de los conflictos que surjan entre las Administraciones interesadas como consecuencia de la interpretación y aplicación del presente Concierto Económico a casos concretos concernientes a las relaciones tributarias individuales.

c) Resolver las discrepancias que puedan producirse con respecto a la domiciliación de los contribuyentes.

Por su parte, el Reglamento de la citada Junta Arbitral, aprobado mediante Acuerdo de la Comisión Mixta del Concierto Económico con fecha 30 de julio de 2007, establece en su artículo 7 lo siguiente:

«1.– La Junta Arbitral tendrá un Secretario, que no podrá ser miembro de ella, en el que deberá concurrir la condición de persona al servicio de la Administración General del Estado o de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco o de las Diputaciones Forales.

2.– El Secretario de la Junta Arbitral será designado, rotativamente y por períodos de tres años, por el Ministro de Economía y Hacienda y por el Consejero de Hacienda y Administración Pública.

...)»

Se acordó por todas las Administraciones implicadas que la figura del Secretario recayera en su primer periodo en un funcionario de la Administración de

funtzionario bati egoki dakion eta gainera egoki deritzote Arbitraje Batzordearen egoitza Gaztelako Atea kaleko 15. zenbakian dagoen higiezinean (01007 Vitoria-Gasteiz) ezartzea.

Hiru urteko epea igaro ondoren, Estatuko Administrazioko funtzionario bat izendatu behar da Idazkaritzako kargurako eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko funtzionarioa den gaur egungo idazkariak kargua utzi behar du. Era berean, Arbitraje Batzordearen egoitza ere aldatuko da.

Horren ondorioz eta lehenago aipaturiko arauak betez, honako hau

XEDATU DUT:

***Lehenengoa***.– Miguel Ortega Abad jaunak Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren III. kapituluko 3. atalean aurreikusitako Arbitraje Batzordeko idazkari kargua utziko du.

***Bigarrena***.– Zerga Administrazioko Estatuko Agentziaren EAEko Ordezkaritza Bereziaren Erakunde Harremanetarako Eskualdeko Bulegoaren Buruzagitzaren titularra izendatuko da Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren III. kapituluko 3. atalean aurreikusitako Arbitraje Batzordeko idazkari izateko. Kargua hutsik badago, betetzen duena kanpoan edo gaixorik badago edo legezko beste edozein arrazoi suertatzen bada, Ordezkaritza horretako Erakunde Harremanetarako Arloan ordezten duen pertsona izango da ordezkaria.

***Hirugarrena***.– Zerga Administrazioko Estatuko Agentziaren Arabako Ordezkaritza dagoen higiezina izango da Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren III. kapituluko 3. atalean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen egoitza, hau da: Olagibel kalea 7, 01001 posta-kodea, Vitoria-Gasteiz.

***Laugarrena***.– Ekonomia eta Ogasuneko ministroari eta Arbitraje Batzordeko lehendakariari jakinaraziko zaie agindu hau.

***Bosgarrena***.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, denek jakin dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 23a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

la Comunidad Autónoma del País Vasco, fijando además la sede de la Junta Arbitral en el inmueble situado en la calle Portal de Castilla número 15, código postal 01007, de Vitoria-Gasteiz.

Una vez transcurrido el periodo de tres años, corresponde nombrar en la Secretaría a una persona que tenga la condición de funcionario al servicio de la Administración del Estado, para lo que debe procederse al cese del actual Secretario, funcionario de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, modificando asimismo la sede de la Junta Arbitral.

En su virtud, y en cumplimiento de la normativa citada,

DISPONGO:

***Primero***.– Cesar a D. Miguel Ortega Abad como Secretario de la Junta Arbitral prevista en el Capítulo III, Sección 3.ª, del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

***Segundo***.– Designar como Secretario de la Junta Arbitral prevista en el Capítulo III, Sección 3.ª del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco a la persona titular de la Jefatura de la Dependencia Regional de Relaciones Institucionales de la Delegación Especial de la Agencia Estatal de Administración Tributaria del País Vasco, que será sustituida, en caso de ausencia, vacante o enfermedad u otra causa legal, por la persona que la sustituya en sus funciones en el área de Relaciones Institucionales de dicha Delegación.

***Tercero***.– Fijar como sede de la Junta Arbitral prevista en el Capítulo III, Sección 3.ª, del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco el inmueble donde se ubica la Delegación de la Agencia Estatal de Administración Tributaria de Álava, situado en la c/ Olaguibel, 7, código postal 01001, de Vitoria-Gasteiz.

***Cuarto***.– Notificar esta Orden a la Ministra de Economía y Hacienda y al Presidente de la Junta Arbitral.

***Quinto***.– Publicar esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco, a los efectos de su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de mayo de 2011.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.